


'Cosmium' proiektua



Ikastetxeetan
360 graduko planetario mugikorra

Vital Fundazioak duen **ingurumen-konpromisoaren** ildotik, 'Cosmium, izarretako bidaiariak' sortu zen, astronomia Arabako ikasleengana hurbiltzeko eta argi-kutsadurari buruz sensibilizatzeko, hori baita XXI. mendeko ingurumen eta energia erronka handienetako bat. 360 gradu, 6 metroko oinarri-diametroa eta 3 metroko altuera duen eta ikastetxeetan bertan instalatzen da planetario mugikor bati esker, ikasleek unibertsoaren parte diren kontzientzia hartzen dute eta unibertsoa jakinduria-iturri itzela dela ere ulertzen dute. Planetarioak 360 graduko Full Dome proiektzio-sistema du, hortaz, kosmosaren izarrak eta elementu harrigarri guztiak kalitate digitalaz proiektatzen dira kupula osoan.

Proiektuak, azken belaunaldiko material eta tresnen bidez, ikasleak prestatzea eta hezteak du helburu, gure lurraldearen hiri, landa, paisaia eta ingurumen eraldaketa prozesuan era aktiboan parte har dezaten. Besteak beste, UNESCOk, Turismoaren Mundu Erakundeak eta Nazioarteko Astronomia Batasunak babesten duten Starlight Fundazioak bermatzen du 'Cosmium'.





Informazioa

Ekimen hau baliatu nahi duten ikastetxe guztientzat dago zabalik. Edukiak adin talde bakoitzari egokituta daude, eta gaztelaniaz, euskaraz edo ingelesez eskaintzen dituzte begirale adituek. Gainera, astronomiarekin lotutako erakunde ofizialen materialetan, teleskopio handiek (lehorrekoak eta estralurtarrak) hartutako irudi errealetan eta software espezializatuak egindako simulazioetan oinarrituta daude. Jarduera Susana Malon fisikari eta astronomoak koordinatzen du, Lumínica Ambiental-eko CEO eta zuzendariak.

'Cosmium-en' gaueko zerua denbora errealean ikus daiteke, baita gizateriaren historiako edozein unetan ere. Horrek interakzio-aukera asko ematen ditu ikasleekin, eta horiek, adibidez, jaio ziren egunean zegoen gaueko zerua ikus dezakete. Vital Fundazioak sustatutako ekimen horri esker, Arabako ikasleek, modu erakargarri eta harrigarrian, eskuratzen dituzte hainbat ezagutza, hala nola Lurraren mugimenduei buruzkoa – Eguna/gaua eta urtaroak –zeruko objektuak, nola orientatu zeru izartsuari begiratzuz, konstelazioak, planeta guztietan zehar ibilaldi bat egitea edo zibilizazioen mitologia eta kultura. Jarduera osatzeko, ikasgeletako tailerretan zeru-mapa bat eraikitzen ikasten da edo Araban dagoen argi-kutsaduraren irudiei buruz eztabaidatzen da.

Horrela, ikuspegi ludiko eta esperimental batetik, parte-hartzaileek oinarritzko gaitasunak garatzen dituzte, hala nola kultura zientifikoa eta teknologikoa, matematikoa, soziala eta herritarra. Era berean, proiektuak herritar gazteenak sentsibilizatzea du helburu, zeru garbiek gizateriarentzat duten garrantziaren inguruan, ondare horrek zientziarako, hezkuntzarako eta kulturarako duen balioa ezagutaraziz, eta, bistan denez, bizi-kalitatearen faktore gisa.

Programan parte hartzea

'Cosmium' hezkuntza programan parte hartu nahi duten ikastetxeek informazio gehiago eskuratu eta izena eman dezakete 945 124 579 **telefono zenbakian** eta cosmium@luminicaambiental.com e-postaren bidez ere bai.